

LOYOLA-KO SAN INAZIO-REN

ETA BERE JAYOTECHEKO BERRI LABURCHO BAT.



Aitalen otsandieneko San Inazio, Jesus-en Konpañiaren fundatzailea, Eleiza Katolika edo guziokikoaren gudagizon bortitza, Españaren ta mundu osoaren onragarririk aundiena, jayo zan 1491-garren urtean, aita Azpeiti-arra Beltran Oñaz-tar izenekoa, ta ama Azkoitia Marina Balda-koa zeritzana, zitubela. Urola ibaiyaren albuana, anziñako gaztelu-eche Loyola-koaren lenengo bizitzan, ifarsortaldeko iskiñan, gaur luzagoturik, Ama Birjiña Doloretakoaren kapilla deritzayonean, nun Aita San Franzisko Borja-k lenengo Meza eman baizuben.

Iñigo izendatu eta izkribapetu oi zan gaztetan, soldaduen agintari ta gero ikaslea zala ere. Soldadutzan dierrialde ziarduela, Iruñean eritua izan zan 1521-en urtean; ta bere aitechean gaño zegoala, oso Jainkoagana biurtu zan, eta lañter asmo artu-zuben, beste oso espirituzko soldadutza berri bat, Eliza gudalariaren erdian moldatzeko, eta zeñaren eginkizuna izan bear zuben, Jainkoaren gloriarik andiena, eta animen betiko salbazioa billatzen sayatzea.

Urrengo-urte 1522-an Aranzazu eta Monserrateko Santutegietara pasa ondoren, Manresan penitenzi edo damu-lan gogorra egin zuen. Jerusalemgo leku santubak 1523-garren urtean ikustatuta-gero, apostoluen antzeko lanbide ikasikizun-doneetan denbora igaro zuen, kontradirik izugarrienen artean-ere, lagunak bildurik Barzelona-n, Alkala, Salamanka, Paris, Erroma ta Benezia-n 1540-en urterano. Paristik bere jaioterri Azpeiti-ra onen onbide andirako, gaño-chamar illabete batzuetarako itzuli zan 1535-an. 1537-an apaiztu zan, ta aurrerago Meza 1538-en urteko Gabonetan Erroman eman zuben. Andik bi ur-

tera, 1540-an, Jesus-en Konpañi edo Lagundiya sortuazi zuen, zeña oniritzi ta sendoiritzi zuben Agorraren 27-en eguneko, buldarekin Aita Santu Paulo III-ak. Aren leenengo Dianagusi autatua izan zanetik, azi, zuzendu, eraendu ta uganditu zuben bere eriotza santurañokoan, zeña gertatu bai-zan Erroma-n, Uztaren 31-an, 1556-an. Doatsutu zuen Aita Santu Paulo V-ak, 1609-an, eta santuen mallara igo-azi Gregorio XV-ak 1622-an.

Urte onetan Tolosa, Azpeiti-Azkoiti, eta beste Gipuzkoa-ko erri nausiyenak jaiyalditu zuten San Inazio, agiriko festegun ta jostaketa aundiakiñ, iraunazirik askotan oek aste-bete osoan. Autu bai-zuben 1610-n urtean Probintziyak bere Patroi-goartaritzat bere Batzarrebete Zumaya-koan; beraganaturik geroztik gipuztarzat edozeñ Jesuita; eta Tolosa-ko 1622-etan eliza-nausi bakoitzean aldare bat, ta ayuntamentu-sala edo batzar tokietan bere iduri bat jartzeko agindurik. Loyola-n bertan 1624-ko Uztailaren 22-an egin zuben boto edo doneskañi otsandikoz autu zuan bere Patroi berezitzat Gipuzkoa-ko apaizdi guziak. Artu zuen ere bere Patroitzat 1680-urteko Urriaren 5-an Bizkaiko Jaunderiyak, Gernika-ko batzarre betean; Santubaren ama gipuztarra, Bizkai-ko Martin Garzia Likoa-ren alaba zalako. San Inazio-ren Eche Santuba are agurtagarriagoa egiñ zan, Jesus-en Lagundia-ri 1682-an emana izan zanetik, eskañirik bera ortarako gogoaren gogoenetik Austria-tar Maria Ana Erregiñ. Andreari Alkañizas-ko markes senar-emazteak. Konpañia-ko guchi lagun bizi izandu ziran bertan 1695-raño. Alkartegi errearen eskuiko egopean, altiste baten-eran gelditu zan; eta 1695-an, berriro agindu zuten Erromatik ez, arren, bere ormarik ikutzeko, eta alzaneez, ikuteza ta berezitu-ba lagatzeko. A. A. Jeronimo, Kordoba-enak, Santuba eritua egon eta onosotu zan Kapilla nausia edertu ta ornitu zuan 1682-tik 1688-koan.¹

Juan dan eunde asieratik onera, Eche Santuko barrunbea erregruetegi ta kapilla agirikoz betea arkitzen da. Leenagokoan, 1684-urtera-

(1) Urte ontan alabañan, Jesus-en Lagundi-fundatzallearen antziduriko arrano baten ichuran, Karlos Fontana-k ziamartu zuan ehekida baliotsubari asiera eman zitzayon. Onen leenengo arri bedeinkatua Pazkoa 2-an 1689-ko Marchoaren 18-an, jaigroz ipiñi zan: utzi zan obra galant au 1767-an, eta bere jarraitze ta bukatzeari 1885-an ekiñ zayo, iruurren otsandiko festaldi erlijiot-suakin asieraturik, eta iskiñ-arri berri bat jarririk, zeña Bitoria-ko Apaizna-gusiyak bedeinkatu baizuen illaren 25-an, Pazkoa Mayatzekoan bigarreanean, Iruñ-en nola San Inazio eritu ta lurreratu zan, oroimentzen danean bertan.

ño, bi bakarrak ziran; Erregutei-zaarra edo bostgarren Mindoloreko kapilla zoru-nausiyen, eta goikuan berriz, San Inazioren Santutegia, nun bai-zeuden erliki bikañak, batez-ere, gaur San Estanislao-Kapilla deritzayon Santuaren lotegichoan.

Eche-Santuaren beian, artarako zorubitarte bat epakirik, eta obren maisu Martin Zaidua-koa zala, egiñ zan 1683-tik 1684-ra, Kapilla-áundi edo Sorrera-garbiko Eleiza, alboan daukan Doloreetako ta leen Santiago-koazeritzan kapillachoz-batera; berritu eta zabalduagotu ziran murruko leyo-bat, eta zoru goikora daraman eskallera. Zoru edo bizitza nausikoan, 1852-n urteraño, iru Kapilla zeuden, Erregutei-zorra, Santa Ana-koa, ta San Franzisko Borja-koa zeritzatenak. I-an orma-paretak estukoatu ta aldare maya, ta S. Franzisko Borja-ren bi iduri galantak obetu dirade 1884-an. Santa Ana-koa deitzen zayo B.^a Mariana-ren Kapilla, an 1853-an Kito-ko Lirio-churiyaren ichurame-na ipiñi zanetik. San Franzisko Borja-koaren aldarea anziñakoan Santa Ana-ko-saloiya zeritzanean dago, eta egiña da 1757-an eta urrezta-tuba 1758-garren urtean.

JOSÉ IGNACIO DE ARANA.

